

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2020ko apirilaren 6tik 14rako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2020/04/07

- **GARRAIOAREN, MUGIKORTASUNAREN ETA HIRI AGENDAREN MINISTERIOA.**
 - Alarma egoera. Salgaien garraioa. - TMA/324/2020 Agindua, apirilaren 6koa, gidariaren eta enpresaren takografo txartelak erabiltzeari buruzko jarraibideak ematen dituena. [2020-4320 xedapena - 2 or.](#)
- **OSASUN MINISTERIOA**
 - **Alarma egoera. Premiazko neurriak.** - SND/325/2020 Agindua, apirilaren 6koa, segurtasun industrial eta metrologikoaren araudian ezarritako egiaztapenen eta mantentze-lan prebentiboen ziurtagirien baliozkotasuna luzatu eta interpretatzeko irizpideak ezartzen dituena. [2020-4321 xedapena - 2 or.](#)
 - **Alarma egoera. Osasun produktuak.** - SND/326/2020 Agindua, apirilaren 6koa, neurri bereziak ezartzen dituena instalazioen funtzionamenduko aurretiazko lizentziak emateko eta CE marka gabeko zenbait osasun produktu funtzionamenduan jartzeko, COVID-19k eragin duen osasun krisia dela-eta. 2020-4322 xedapena [2020-4322 xedapena - 3 or.](#)

2020/04/08

- **ESTATUKO BURUZAGITZA.** - Alarma egoera. Premiazko neurriak. - 13/2020 Errege Lege-dekretua, apirilaren 7koa, premiazko neurriak hartzen dituena nekazaritza-enpleguaren alorrean. [2020-4332 xedapena - 19 or.](#)
- **GARRAIOAREN, MUGIKORTASUNAREN ETA HIRI AGENDAREN MINISTERIOA.** - Alarma egoera. Abiazio zibila. - Ebazpena, 2020ko apirilaren 2koa, Aire Segurtasunaren Estatuko Agentziaren Zuzendaritzarena, 2018/1139 (EB) Erregelamenduaren 71. artikuluan ezarritakoaren arabera, aireko nabigagarritasunaren berrikuspen-ziurtagiriak jaulkitzeko salbuespena ematen duena, bai eta aireontzien mantentze-lanetarako teknikari-lizentzia batean eredu-gaikuntza bat sartzeko beharrezkoak diren eredu-prestakuntza eta OJT amaitzeko ere, COVID-

19 koronabirusaren krisi globalak sortutako egoerarekin lotuta.- [2020-4333 xedapena - 3 or.](#)

- **GARRAIOAREN, MUGIKORTASUNAREN ETA HIRI AGENDAREN MINISTERIOA.** – Administrazio epeak. Abiazio zibila. – Ebazpena, 2020ko apirilaren 1ekoa, Aire Segurtasunaren Estatuko Agentziaren Zuzendaritzarena, zeinaren bidez erabakitzen den COVID-19ak eragindako osasun krisiaren egoera kudeatzeko alarma egoera deklaritzen duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak eragindako zenbait administrazio prozeduraren jarraipena. [2020-4367 xedapena - 3 or.](#)
- **GAI EKONOMIKOEN ETA ERALDAKETA DIGITALAREN MINISTERIOA.** – Motordun ibilgailuak. Aseguruak. – Ebazpena, 2020ko martxoaren 30ekoa, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen diren kalte-ordainen zenbateko eguneratuak, zirkulazio istripuetan pertsonen eragindako kalteak baloratzeko sisteman. [2020-4371 xedapena - 1 or.](#)

[2020/04/09](#)

- **ESTATUKO BURUZAGITZA.** Alarma egoera. Premiazko neurriak.- Akats zuzenketa, Errege Lege-dekretu honena: 11/2020 Errege Lege-dekretua, martxoaren 31koa, premiazko neurri osagarriak hartzen dituen arlo sozial eta ekonomikoan, COVID-19ari aurre egiteko. [2020-4377 xedapena - 1 or.](#)
- **OGASUN MINISTERIOA.-** Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga.- HAC/329/2020 Agindua, apirilaren 6koa, 2019ko zergaldirako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zenbatespen objektiboaren metodoan aplikatzekoak diren etekin garbiaren indizeak murrizten dituen, salbuespenezko hainbat egoerak eragindako nekazaritza- eta abeltzaintza-jardueretarako. [2020-4378 xedapena - 33 or.](#)
- **GARRAIOAREN, MUGIKORTASUNAREN ETA HIRI AGENDAREN MINISTERIOA.-** Alarma egoera. Itsas nabigazioa.- TMA/330/2020 Agindua, apirilaren 8koa, Italiar Errepublikatik datozen bidaiarien ontziei eta edozein lekutatik datozen gurutzontziei espainiar portuetara sartzeko debekua luzatzen duena, COVID-19aren hedatzea eta kutsatzeak mugatzeko. [2020-4379 xedapena - 2 or.](#)
- **INKLUSIOAREN, GIZARTE SEGURANTZAREN ETA MIGRAZIOEN MINISTERIOA.-** Alarma egoera. Gizarte Segurantza.- Ebazpena, 2020ko apirilaren 6koa, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarena, Gizarte Segurantzarekiko zorren ordainketa geroratzeko zenbatekoak aldatzen dituen. Zenbateko horiek Gizarte Segurantzaren diru-bilketaren kudeaketaren arloko eginkizunak zehazteari buruzko 2004ko uztailaren 16ko Ebazpenean eta ekainaren 11ko 1415/2004 Errege

Dekretuaren bidez onetsitako Gizarte Segurantzaren Diru-bilketaren Erregelamendu Orokorrean ezarri ziren. **2020-4380 xedapena - 3 or.**

- **MERKATUEN ETA LEHIAREN BATZORDE NAZIONALA.-** Administrazio epeak.- Akordioa, 2020ko apirilaren 6koa, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalarena, prozeduren epeak eta izapideak bertan behera uzteari buruzkoa, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak deklaraturako alarma egoeraren testuinguruan.- **2020-4396 xedapena - 3 or.**

2020/04/10

- **KANPO GAIEN, EUOPAR BATASUNAREN ETA KOOPERAZIOAREN MINISTERIOA.-** Administrazio nazioarteko akordioak
 - M317 Akordio Aldeaniztuna, Errepidez merkantzia arriskutsuak garraiatzeko nazioarteko garraioari buruzko Akordioaren (ADR) 1.5 atalari jarraikiz, hondakin mediko solido edo klinikoen garraioari buruz, A kategoria, Madrilen 2020ko martxoaren 23an egina.- **2020-4397 xedapena - 4 or.**
 - M324 Akordio Aldeaniztuna, Errepidez merkantzia arriskutsuak garraiatzeko nazioarteko garraioari buruzko Akordioaren (ADR) 1.5.1 atalari jarraikiz, gidarien prestakuntza-ziurtagiriei buruz, ADRko 8.2.2.8.2 puntuari jarraikiz, eta segurtasun aholkularien ziurtagiriei buruz, ADRko 1.8.3.7 puntuari jarraikiz, Madrilen, 2020ko martxoaren 23an egina. **2020-4398 xedapena - 1 or.**
 - M325 Akordio Aldeaniztuna, Errepidez merkantzia arriskutsuak garraiatzeko nazioarteko garraioari buruzko Akordioaren (ADR) 1.5.1 atalari jarraikiz, zisternei egiteko aldizkako edo tarteko ikuskapenei buruz, ADRko 6.8.2.4.2, 6.8.2.4.3, 6.8.3.4.6, 6.8.3.4.12, 6.9.5.2 eta 6.10.4 puntuei jarraikiz, eta ibilgailuak onartzeko ziurtagiriei buruz, ADRko 9.1.3.4 puntuari jarraikiz, Madrilen, 2020ko martxoaren 23an egina. **2020-4399 xedapena - 1 or.**
 - RID 1/2020 Akordio Aldeaniztuna, Trenbidez merkantzia arriskutsuak garraiatzeko nazioarteko garraioari buruzko Araudiaren (RID) 1.5.1 atalari jarraikiz, segurtasun aholkularien ziurtagiriei buruz, RIDeko 1.8.3.7 puntuari jarraikiz, Madrilen, 2020ko martxoaren 25ean egina. **2020-4400 xedapena - 1 or.**
 - RID 2/2020 Akordio Aldeaniztuna, Trenbidez merkantzia arriskutsuak garraiatzeko nazioarteko garraioari buruzko Araudiaren (RID) 1.5.1 atalari jarraikiz, aldizkako edo tarteko ikuskapenei buruz, RIDeko 6.8.2.4.2, 6.8.2.4.3, 6.8.3.4.6, 6.8.3.4.12, 6.9.5.2 eta 6.10.4 atalei jarraikiz, Madrilen, 2020ko martxoaren 25ean egina. **2020-4401 xedapena - 1 or.**

- **ESKUBIDE SOZIALEN ETA 2030 AGENDAREN MINISTERIOA.-** Espainiako Itsuen Erakunde Nazionala. Jokoak.- Ebazpena, 2020ko apirilaren 7koa, Eskubide Sozialen Estatuko Idazkaritzarena, zeinaren bidez argitaratzen diren ONCEren joko-jarduerei eragiten dieten zenbait neurri, COVID-19ak eragindako osasun krisiaren egoera kudeatzeko alarma egoera deklaratzeko duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren ondorioz. **2020-4405 xedapena - 8 or.**

2020/04/11

- **GORTE NAGUSIAK.-** Alarma egoera. Luzapena.- Ebazpena, 2020ko apirilaren 9koa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bidez agintzen den argitara dadila martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak deklaraturako alarma egoera luzatzeko baimenaren akordioa. **2020-4406 xedapena - 1 or.**
- **KANPO GAIEN, EUROPAR BATASUNAREN ETA KOOPERAZIOAREN MINISTERIOA.-** Administrazioako nazioarteko akordioak
 - RID 3/2020 Akordio Berezi Aldeaniztuna, Trenbidez merkantzia arriskutsuak garraiatzeko nazioarteko garraioari buruzko Araudiaren (RID) 1.5.1 atalari jarraikiz, 2 klaseko gasak garraiatzeko presio ontzien aldizkako ikuskapenei eta saioei buruz, Madrilen, 2020ko apirilaren 2an egin. **2020-4407 xedapena - 2 or.**
 - RID3/2020 Akordio Berezi Aldeaniztuna, Trenbidez merkantzia arriskutsuak garraiatzeko nazioarteko garraioari buruzko Araudiaren (RID) 1.5.1 atalari jarraikiz, zisterna eramangarrien eta "UN" ziurtagiridun elementu anitzeko gas edukiontzien (CGEM) aldizkako edo tarteko ikuskapenei buruz, RIDeko 6.7.2.19.2, 6.7.3.15.2, 6.7.4.14.2 eta 6.7.5.12.2 atalei jarraikiz, Madrilen, 2020ko apirilaren 2an egin. **2020-4408 xedapena - 1 or.**
 - M326 Akordio Aldeaniztuna, Errepidez merkantzia arriskutsuak garraiatzeko nazioarteko garraioari buruzko Akordioaren (ADR) 1.5.1 atalari jarraikiz, 2 klaseko gasak garraiatzeko presio ontziei egiteko aldizkako ikuskapen eta saioei buruz, Madrilen, 2020ko apirilaren 2an egin. **2020-4409 xedapena - 2 or.**
 - M327 Akordio Aldeaniztuna Errepidez merkantzia arriskutsuak garraiatzeko nazioarteko garraioari buruzko Akordioaren (ADR) 1.5.1 atalaren pean, zisterna eramangarrien eta "UN" ziurtagiridun elementu anitzeko gas edukiontzien (CGEM) aldizkako edo tarteko ikuskapenei buruz, ADRko 6.7.2.19.2, 6.7.3.15.2, 6.7.4.14.2 eta 6.7.5.12.2 atalak betez, Madrilen, 2020ko apirilaren 2an egin. **2020-4410 xedapena - 1 or.**

- **BARNE MINISTERIOA.-** Alarma egoera. Mugak.- INT/335/2020 Agindua, apirilaren 10ekoa, lurreko barne mugetan kontrolak luzatzen dituen, COVID-19ak eragindako osasun krisia dela-eta. **2020-4411 xedapena - 2 or.**
- **GARRAIOAREN, MUGIKORTASUNAREN ETA HIRI AGENDAREN MINISTERIOA.-** Alarma egoera. Etxebizitza.- TMA/336/2020 Agindua, apirilaren 9koa, zeinaren bidez Etxebizitzaren Estatuko Planaren (2018-2021) laguntza-programa bana gehitu, ordeztu eta aldatzen den, COVID-19ari aurre egiteko arlo sozial eta ekonomikoko premiazko neurri osagarriak hartzen dituen martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege-dekretuaren 10., 11. eta 12. artikuluetan xedatutakoa betetzeko. **2020-4412 xedapena - 9 or.**
- **PRESIDENTETZAREN, GORTEEKIKO HARREMANEN ETA MEMORIA DEMOKRATIKOAREN MINISTERIOA.-** Alarma egoera. Luzapena.- 487/2020 Errege Dekretua, apirilaren 10ekoa, COVID-19ak eragindako osasun krisiaren egoera kudeatzeko alarma egoera deklaratzeko duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak deklaraturako alarma egoera luzatzen duena. **2020-4413 xedapena - 4 or.**
- **GAI EKONOMIKOEN ETA ERALDAKETA DIGITALAREN MINISTERIOA.-** Alarma egoera. Abalak.- Ebazpena, 2020ko apirilaren 10ekoa, Ekonomia eta Enpresei Laguntzeko Estatu Idazkaritzarena, Ministro Kontseiluaren 2020ko apirilaren 10eko Erabakia argitaratzen duena. Erabaki horren bidez, Kreditu Ofizialeko Institutuari jakinarazten zaio martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege-dekretuak onetsitako abal-lerroaren bigarren zatia abian jarri behar duela, eta enpresa txiki eta ertainek haren onuradunak izan behar dutela ezartzen da. **2020-4414 xedapena - 3 or.**
- **OSASUN MINISTERIOA**
 - **Alarma egoera. Petrolio produktuak.-** SND/337/2020 Agindua, apirilaren 9koa, beharrezko neurriak ezartzen dituen gasolina-zerbitzuguneetan eta itsas zutoinetan erregaiei txikizkako banaketarako funtsezko zerbitzuak beteko direla bermatzeko, COVID-19ak eragindako osasun krisia kudeatzeko alarma egoera deklaratzeko duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren ondorioz. **2020-4415 xedapena - 6 or.**
 - **Alarma egoera. Premiazko neurriak.-** Ebazpena, 2020ko apirilaren 9koa, Sendagaien eta Osasun Produktuen Espainiako Agentziarena, apirilaren 3ko SND/321/2020 Aginduaren Eranskina eguneratzen duena. Agindu horrek neurri bereziak ezartzen ditu eskuak desinfektatzeko disoluzio eta gel hidroalkoholikoak fabrikatzeko bioetanola erabiltzeko, COVID-19ak eragindako osasun krisiaren ondorioz. **2020-4416 xedapena - 2 or.**

- **Alarma egoera. Turismo sozialeko programa.-** SND/338/2020 Agindua, apirilaren 8koa, COVID-19k eragindako krisiaren ondorioz, Adinekoen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuaren gizarte-turismoko programaren barruan sartzen den edozein jardueraren etena luzatzen duena, bai eta turismo-eremuetan enplegua mantentzea ere. 2020-4420 xedapena - 2 or.

2020/04/12

- **OSASUN MINISTERIOA** Premiazko neurriak.- SND/340/2020 Agindua, apirilaren 12koa, dauden eraikinetan esku hartzeko lanekin lotutako zenbait jarduera bertan behera uzten dituen, lanekin zerikusirik ez duen jendea COVID-19arekin kutsatzeko arriskua dagoen kasuetan. 2020-4424 xedapena - 2 or.

2020/04/13

- **GORTE NAGUSIAK.**
 - **Alarma egoera. Laneko neurri osagarriak.-** Ebazpena, 2020ko apirilaren 9koa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bidez agintzen den argitara dadila lan arloan COVID-19aren ondorioak arintzeko neurri osagarriak ezartzen dituen martxoaren 27ko 9/2020 Errege Lege-dekretuaren baliozkotze akordioa. 2020-4425 xedapena - 1 or.
 - **Alarma egoera. Premiazko neurriak.-** Ebazpena, 2020ko apirilaren 9koa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bidez agintzen den argitara dadila, COVID-19aren aurkako lanaren testinguruan, biztanleen mugikortasuna murrizteko, oinarritzko zerbitzuak ematen ez dituzten besteren konturako langileentzako baimen ordaindua arautzen duen martxoaren 29ko 10/2020 Errege Lege-dekretuaren baliozkotze akordioa. 2020-4426 xedapena - 1 or.
 - **Alarma egoera. Premiazko neurriak.-** Ebazpena, 2020ko apirilaren 9koa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bidez agintzen den argitara dadila COVID-19ari aurre egiteko, arlo sozial eta ekonomikoan premiazko neurri osagarriak hartzen dituen 11/2020 Errege Lege-dekretuaren baliozkotze akordioa. 2020-4427 xedapena - 1 or.

2020/04/14

- **INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO MINISTERIOA.-** Alarma egoera. Neurri ekonomikoak ICT/343/2020 Agindua, apirilaren 6koa, COVID-19aren ondorioetarako, Compañía Española de Seguros de Crédito a la Exportación, S.A.ren zirkulatzaila-lerroari aplikatu beharreko primak onesten dituen. [2020-4441 xedapena](#) - 3 or.
- **OSASUN MINISTERIOA.-** Alarma egoera. Osasun Sistema Nazionala.- SND/344/2020 Agindua, apirilaren 13koa, salbuespen neurriak ezartzen dituen Osasun Sistema Nazionala indartzeko eta COVID-19ak eragindako osasun krisiari eusteko. [2020-4442 xedapena](#) - 3 or.

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2020/04/07

- **OSASUN SAILA.** - AGINDUA, 2020ko apirilaren 2koa, Osasuneko sailburuarena, gainazalak garbitzeko eta desinfektatzeko neurriak eta bestelako higiene-neurriak hartzen dituen SARS-CoV-2 (Covid-19) birusak eragindako pandemia dela eta. [1818 xedapena](#) - 5 or.

2020/04/08

- **OSASUN SAILA**
 - AGINDUA, 2020ko martxoaren 30ekoa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez aldatzen baita 2020ko otsailaren 10eko Agindua; agindu horren bidez arautzen da farmazia-industriako delegatuen eta produktu eta teknologia sanitarioen fabrikatzaile, banatzaile edo merkaturatzaileen ordezkarien bisita medikoa Euskadiko Osasun Sistemako zerbitzu sanitarioetako erakundeetan. [1832 xedapena](#) - 2 or.
 - HUTS-ZUZENKETA, honako agindu honena: Agindua 2020ko apirilaren 2koa, Osasuneko sailburuarena, gainazalak garbitzeko eta desinfektatzeko neurriak eta bestelako higiene-neurriak hartzen dituen SARS-CoV-2 (Covid-19) birusak eragindako pandemia dela eta. [1833 xedapena](#) - 2 or.
 - AGINDUA, 2020ko apirilaren 6koa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez neurriak hartzen baitira SND/232/2020 Agindua aplikatzeko (SND/232/2020 Aginduaren bidez, giza baliabideen eta bitartekoen arloko neurriak ezartzen dira Covid-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko). [1834 xedapena](#) - 5 or.

- AGINDUA, 2020ko apirilaren 6koa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez aldi baterako eteten baitira Euskal Autonomia Erkidegoan elikagai eta nekazaritzako eta abeltzaintzako produktuen zuzeneko salmentako merkatu eta azoka tradizionalak eta arautzen baita Euskadiko zenbait udalerritan denda-ibilgailuak baliatuz denda ibiltariek garatzen duten jarduera SARS-CoV-2 (Covid-19) birusak sortutako pandemia dela eta. [1835 xedapena – 3 or.](#)

2020/04/14

- **LEHENDAKARITZA.-** EBAZPENA, 2020ko apirilaren 2koa, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiarena, zeinaren bidez euskal etxeei dirulaguntzak emateko 2020. urteko deialdia egiten baita, atzerrian dauden euskal gizataldeetako partaideak diren eta egoera larrian eta asistentzia-faltan dauden pertsonen laguntzeko. [1845 xedapena – 7 or.](#)

2020/04/15

- **EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA.-** AGINDUA, 2020ko apirilaren 3koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baita Covid-19aren eragin ekonomikoaren ondorioz krisi-egoeran dauden enpresak berregituratzeko eta bultzatzeko laguntzak ezartzen dituen Bideratu Covid-19 Programa. [1850 xedapena -12 or.](#)
- **ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA.-** EBAZPENA, 2020ko apirilaren 8koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, aparteko dirulaguntzetarako deialdi bat argitaratzeko dena; dirulaguntzen hartzaileak norberaren konturako langileak edo langile autonomoak izango dira, zehazki beren jarduerak etenda dituztenak Covid-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko deklaraturako alarma-egoera dela eta. [1852 xedapena -14 or.](#)

A.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala)

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2020/04/06

- **GIZARTE EKINTZA SAILA**
 - Gizarte Ekintzako foru diputatuaren 19869/2020 FORU AGINDUA, apirilaren 3koa. Honen bidez, zenbait neurri ezartzen dira, EHU-ko Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko azken urtean dauden ikasleak kontratatzeko. [2020-066 \(I-264\) xedapena – 3 or.](#)

- Gizarte Ekintzako foru diputatuaren 19870/2020 FORU AGINDUA, apirilaren 3koa. Honen bidez, zenbait neurri ezartzen dira mendeko pertsonen gizarte-erakundeetan gizarte- eta osasun-arreta emateko tituluetakoz azken urtean dauden ikasleak kontratatzeko, urriaren 19ko 1368/2007 errege dekretuan ezarritakoarekin bat. [2020-066 \(I-265\) xedapena – 4 or.](#)
- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA.** - Ogasun eta Finantzen foru-diputatuaren 727/2020 FORU AGINDUA, apirilaren 3koa, zeinaren bidez Ogasuneko zuzendari nagusiari eskuordetzen baitzaio konkurtsoan dauden enprekin sinatutako hitzarmen bereziak aldatzeko baimena emateko eskumena, COVID-19 koronabirusa dela-eta hartutako neurriek eragindako ondorio ekonomiko negatiboek kalteak sortu dizkietenean enpresei. [2020-066 \(I-268\) xedapena – 2 or.](#)

2020/04/14

- **GIZARTE EKINTZA SAILA.-** Gizarte Ekintzako foru diputatuaren 19981/2020 FORU AGINDUA, apirilaren 3koa, zeinaren bidez hotel plaza batzuk jartzen baitira mendekotasuna eta desgaitasuna duten pertsonentzako Bizkaiko Lurralde Historikoko egoitzetan zuzeneko laguntza diharduten langileen eskura. [2020-069 \(I-279\) xedapena – 2 or.](#)
- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA.-** Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 749/2020 FORU AGINDUA, apirilaren 7koa. Honen bidez, tributu-administrazioak egiten dituen zenbait likidazioen borondatezko epea luzatzen da, COVID-19 birusak eragindako osasun-larrialdiaren egoeraren ondorioz. [2020-069 \(I-276\) xedapena – 2 or.](#)

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2020/04/06

- **GIZARTE POLITIKETAKO DEPARTAMENTUA.** - Akats zuzenketa: 287/2020 Foru Agindua, martxoaren 30ekoa, foru eskumeneko egoitzetako erabiltzaileak eta zentroen sareko laguntza duten etxebizitzetan bizi direnak etxera itzultzeko programa ezartzen duena, mendekotasun eta/edo desgaitasun egoeran dauden pertsonen zuzendutakoa, Covid-19ak eragindako alarma egoerak irauten duen bitartean; zehazki, laguntza teknikoak eta ekonomikoak dira. [\(1 or.\)](#)

2020/04/08

- **GIZARTE POLITIKETAKO DEPARTAMENTA.** - Apirilaren 3ko 296/2020 Foru Agindua, irizpideak onartzekoa erizaintzako graduazko prestakuntza urtean dauden ikasleak kontratatzeko, hartara Gipuzkoako Lurralde Historikoko adinekoen egoitza zentroetan osasun laguntzako zerbitzuak emateko. (3 or.)

2020/04/14

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.**- 137/2020 Foru Agindua, apirilaren 3koa, pertsona fisikoei Ogasun eta Finantza Departamentuko zerga arloko ordezkarien erroldan ordezkartza berriak inskribatzea ahalbidetzen dien ezohiko sistema bat arautzen duena, COVID-19ak sortutako aparteko egoerak irauten duen bitartean. (3 or.)
- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.**- 139/2020 Foru Agindua, apirilaren 8koa, 2020ko uztailaren 29ra arte luzatzen duena 2020ko martxoaren 14tik uztailaren 29ra bitartean, biak barne, iraungi diren edo iraungiko diren pasahitz operatiboen indarraldia. (2 or.)
- **EKONOMIA SUSTAPENeko, TURISMOKO ETA LANDA INGURUNEKO DEPARTAMENTUA.**- Oinarri arautzaileak eta 2020ko deialdia turismo zerbitzuen sektoreko autonomo eta enpresa txikiei laguntzeko programako dirulaguntzak Covid-19 koronabirusak sortutako gastuei aurre egiteko. i arautzaileak eta 2020ko deialdia turismo zerbitzuen sektoreko autonomo eta enpresa txikiei laguntzeko programako dirulaguntzak Covid-19 koronabirusak sortutako gastuei aurre egiteko. (13 or.)

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala):

2020/04/14

- Batzordearen 2020/518 (EB) Gomendioa, 2020ko apirilaren 8koa, Batasuneko instrumentu komunak multzoari buruzkoa, teknologia eta datuak erabiltzeko, COVID-19ak eragindako krisiari aurre egiteko eta hura gainditzeko xedez, batez ere mugikorren aplikazioei eta mugikortasun datu anonimatuak erabiltzeko dagokienez. L 114/07

- Batzordearen 2020/519 (EB) Erabakia, 2020ko apirilaren 3koa, ingurumen kudeaketako jardunbide onenei buruzko sektoreko erreferentzia-dokumentuari, ingurumen-jokaeren sektore-adierazleei, eta bikaintasuneko konparazio-parametroei buruzkoa, hondakinen kudeaketako sektorearentzat, 1221/2009 (EE) Erregelamenduaren esparruan, erakundeek ingurumena kudeatzeko eta ikuskatzeko EBko sisteman borondatez parte hartzeari buruzkoan (EMAS) (1). **L 115/01**

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2

HENAO, 26 - 48009 BILBAO